Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2195

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Honen bidez, baimena ematen da unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko beketarako 2008-2009 ikasturteko deialdira zuzendutako diru-kopurua gehitzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko ekainaren 11ko Aginduak, 2008-2009 ikasturtean unibertsitate ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beketarako dei egiten duenak (EHAA, 2008ko uztailaren 3koa), bere artikulu bakarraren 2. puntuan xedatzen du laguntzen zenbateko osoa 16.124.905 eurokoa dela (11.280.905 euro erabiliko dira 2008ko ekitaldian onartutako emate-ebazpenak finantzatzeko, eta gainerakoa -4.844.000 euro- 2009ko ekitaldian onartutako ebazpenak finantzatzera bideratuko da). Nolanahi ere, kopuru hau egunera daiteke, onartzeko dagoen eskari-kopurua aurreikusita. Baldin eta aurrekontu-aldaketen ondorioz aipatutako kopurua gehitzen bada, hori jendaurrean jakinarazi beharko da, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

Diru-laguntzetarako deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita eta 2008ko ekainaren 11ko Aginduko artikulu bakarraren 2. puntua bete dadin, hau

EBATZI DUT:

2008-2009 ikasturtean unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko beken deialdirako zenbateko osoa igotzeko baimena ematea, eta hasierako zenbatekoari 4.400.000 euro gehitzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 2a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2195

RESOLUCIÓN de 2 de abril de 2009, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el gasto para la ampliación de las cantidades destinadas a la convocatoria de becas de carácter general para estudios universitarios y otros estudios superiores en el año académico 2008-2009.

La Orden de 11 de junio de 2008 (BOPV de 3 de julio de 2008), del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas de carácter general, para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores en el curso académico 2008-2009 determina en su artículo único, punto 2, que el importe total de las ayudas asciende a 16.124.905 euros (11.280.905 euros se destinaran a la financiación de las resoluciones de concesión que se adopten durante el ejercicio 2008 y el resto -4.844.000 euros- se destinará a la financiación de las resoluciones que se adopten durante el ejercicio 2009), y que puede ser modificada teniendo en cuenta la cuantía que suponen las propuestas de concesión. Esta circunstancia será objeto de publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios.

Vistas las necesidades económicas que genera la resolución de la citada convocatoria de becas de carácter general para estudios universitarios y otros estudios superiores y en cumplimiento del mencionado artículo único, punto 2 de la Orden de 11 de junio de 2008.

RESUELVO:

Autorizar el incremento del importe total de la convocatoria de becas para estudios universitarios y otros estudios superiores en el curso 2008-2009, ampliándola en 4.400.000 euros.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 2009.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.